

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ERRETERIAKO UDALA

*2016ko azaroaren 14an Alkateak hartutako erabakia*

Aurreko legegintzaldian onartu zen Errenteria 2025 Plan Estrategikoa, eta hori garatzeko tresna gisa 2015-2019 Legegintzaldi Plana prestatu da, gobernu-taldeak horren bitartez antolatuz agintaldiko lau urteetarako ekintza politikoa, xede izanik herritarrek nahiz erakundeak bat egitea helburu orokorra-rekin.

Helburuak lortzea xede duen plangintza hori garatu eta aurreratu behar da eta legegintzaldiko Kudeaketa Planean eta udal-aurrekontuan islatu.

Halaber, legeetan egindako azken aldaketen ondorioz, ahal-egin berezia egin behar da prozedurak modernizatu eta sinplifikatzeko; ahalik eta gardentasun handienarekin funtzionatzeko eta zerbitzu publikoak kalitate-estandarren baitan emateko.

Gure erakundearen egungo antolamenduaren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartu dugu eta ateratako ondorioa izan da erakunde eraginkor eta efizienteagoa izango bagara kudeatzeko modua aldatu behar dugula.

Udalaren osaera organikoa berritu behar dugu, antolamendua sinplifikatzeko eta sail/azpisailen arteko koordinazioa hobetzeko.

Hausnartze horren baitan, Alkateak derrigorrezkotzat jo du politikoei eta teknikariek osatutako zuzendaritza organo bat izatea; organo horren zereginak izango dira koordinazio-lanak egitea eta sail/ azpisailen eta teknikarien arteko elkarlana sustatzea, gai eta kontu zehatzagoak aztertzei beste funtzio espezifikoek gain. Hala ere, koordinazio-taldeak sortu beharko dira.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta Alkateak eskumen hauek dituela: Udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera; antolaketa izaerako dekretu eta jarraibideak emateko ahalmena 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoaren 25.7 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atalean xedatutakoaren arabera eta Udalaren zerbitzu administratiboak egituratzea eta antolatzea, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak, Udal Korporazioen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian dioenaren arabera,

ERABAKI DUT

*Lehenengo.* Udal antolaketa-egitura barruan, «Zuzendaritza Taldea» izeneko kide anitzeko organo osagarria sortzea.

*Bigarren.* Honako kideek osatuko dute aipatutako organoa:

— Alkatea: Julen Mendoza Pérez.

AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

*Resolución de Alcaldía de fecha 14 de noviembre de 2016*

Resultando que la pasada legislatura se aprobó el Plan Estratégico Errenteria 2025 y como desarrollo del mismo se ha elaborado el Plan de Legislatura 2015-2019 como instrumento mediante el cual el equipo de gobierno ha planificado su acción política para estos cuatro años de mandato, con el objetivo de identificar y compartir sus objetivos tanto con la ciudadanía como con la organización.

Resultando que es necesario desarrollar y avanzar con dicha planificación encaminada a la consecución de objetivos y plasmarla en el correspondiente Plan de Gestión de la legislación y presupuesto municipal.

Considerando, asimismo, las recientes reformas legislativas que están exigiendo esfuerzos en orden a modernizar y simplificar los procedimientos; funcionar con la máxima transparencia y conseguir estándares de calidad en la prestación de los servicios públicos.

Considerando que dentro del proceso de reflexión llevado a cabo sobre la organización y funcionamiento actual de nuestra institución, hemos llegado a la conclusión de que resulta necesaria una transformación del modo de gestión municipal para convertirnos en una organización más eficaz y eficiente.

Considerando la necesidad de realizar una renovación de la composición orgánica municipal que tiene como objetivos la simplificación organizativa y la mejora de la coordinación entre las diversas áreas/subáreas.

Resultando que dentro de esa reflexión, desde la Alcaldía se ha considerado necesaria la existencia de un órgano colectivo de dirección, de composición mixta, política y técnica, que tendrá labores de coordinación y engranaje entre áreas/subáreas y personal técnico, además de otras funciones más específicas de análisis de temas y asuntos determinados. Todo ello sin perjuicio de la necesidad de constituir equipos de coordinación.

A la vista de lo anterior y correspondiendo a esta Alcaldía, conforme a lo dispuesto en el artículo 21.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local la atribución de dirigir el gobierno y la administración municipal, conforme a los artículos 25.7 y la disposición adicional primera 1.c) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en cuanto a la potestad de dictar decretos o instrucciones de naturaleza organizativa y conforme a la disposición adicional cuarta del RD 2.568/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, la estructura y organización de los servicios administrativos del Ayuntamiento,

ACUERDO

*Primero.* Crear, dentro de la estructura organizativa municipal, un órgano colegiado complementario denominado «Zuzendaritza Taldea».

*Segundo.* Este órgano estará compuesto por las y los siguientes miembros:

— El Alcalde: Julen Mendoza Pérez.

- Tokiko Gobernu Batzordeko bi kide: Jaione Karrikiri Garaño eta Ion Collar Rioseco.
- Idazkaria nagusia: Nagore Sarasola Otermin.
- Kontu-hartzailea: Mari Jose Sánchez Plaza.
- Informazio gizartea eta herritarren partehartze ardura-duna: Begoña Bueno Barranco.
- Hirigintzako aholkulari juridikoa: Vicente Castiella Castiella.
- Arkitektoa: Xabier Agirre Ugarte.
- Kirol arduraduna: Luis Peña Suarez.
- Gizarte zerbitzuetako zuzendaria: Leire Sein Arbelaitz.

*Hirugarren.* Hauek izango dira Zuzendaritza Taldearen funtzioak: Udaleko administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, kontsultatzea, proposatzea, informatzea eta ebaluatzea, baina ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

Zehazki, funtzio espezifiko hauek finkatzen dira:

- Udal sail/azpisailetakoa gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- Sail/azpisail batzuei komunak zaizkien gaiak koordinatzea.
- Alkatetzari aholkuak ematea berezko dituen eskumenak erabiltzean, zinegotzi ordezkariari eta Tokiko Gobernu Batzordeari dagokion aholkularitzaren kalterik gabe.

– Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetza informatzea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.

- Zeharkako prozesuetan aldaketa bultzatzea eta bideratzea.
- Alkatetzak egoki irizitako bestelako gai orokorretan laguntzea.

*Bosgarren.* Organoak berak finkatuko ditu bileren araubidea eta funtzionatzeko beste alderdi batzuk Ordezko gisa, toki-araubidearen legerian eta Sektore Publikoko Araubidea arautzen duen 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-erregimena aplikatuko da.

*Seigarren.* Dekretu hau Udalbatzarrari jakinaraztea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Erreterria, 2016ko azaroaren 23a.—Jaione Karrikiri Garaño, alkateordea. (8158)

- Dos miembros de la Junta de Gobierno Local: Jaione Karrikiri Garaño y Ion Collar Rioseco.
- La Secretaria General: Nagore Sarasola Otermin.
- La Interventora: Mari Jose Sánchez Plaza.
- La Responsable de sociedad de la información y participación ciudadana: Begoña Bueno Barranco.
- El Asesor jurídico de urbanismo: Vicente Castiella Castiella.
- El Arquitecto: Xabier Agirre Ugarte.
- El Responsable de deportes: Luis Peña Suarez.
- La Directora de servicios sociales: Leire Sein Arbelaitz.

*Tercero.* Corresponde a Zuzendaritza Taldea funciones de planificación, coordinación, asesoramiento, consulta, propuesta, información, y evaluación de la gestión administrativa del ayuntamiento, sin que en ningún caso tenga competencias decisorias propias ni por delegación de otros órganos municipales.

Concretamente, se señalan las siguientes funciones específicas:

- Análisis de la gestión ordinaria de las materias objeto de las áreas/subáreas municipales.
- Coordinación de las materias comunes a varias áreas/subáreas.
- Asesoramiento a la Alcaldía en el ejercicio de sus competencias propias, sin perjuicio del asesoramiento que corresponde a las y los Concejales Delegados y a la Junta de Gobierno Local.

– Información y propuesta a la Alcaldía respecto de la definición de la naturaleza y grado de los objetivos a conseguir, así como colaboración en el control del grado de consecución de los objetivos.

- Impulso y canalización del cambio en procesos transversales.
- Colaboración en otras cuestiones generales que la Alcaldía considere oportunas.

*Quinto.* Su régimen de sesiones y otros aspectos de funcionamiento serán establecidos por el propio órgano, aplicándose con carácter supletorio el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados previsto en la legislación de régimen local y en Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

*Sexto.* Dar cuenta de este Decreto al Pleno del Ayuntamiento en la primera sesión que celebre y publicarlo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Erreterria, a 23 de noviembre de 2016.—La teniente de alcalde, Jaione Karrikiri Garaño. (8158)